


Zuhaitz bakartuena eta zorigaiztokoena



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Ténéré eskualdea (egungo Niger), XVII. mendea. Sahara basamortuaren hegoaldeko zati hori gaur egun baino hezeagoa zen orduan eta, landaredia urria izan arren, han eta hemen zuhaitz batzuk hazten ziren. Basamortua idortu ahala, zuhaitz guztiak hil ziren, bat ezik. Hamarkada luzez, akazia batek bizirik iraun zuen eta munduko zuhaitz bakartuena izendatu zuten, 400 kilometroko itzulingeruan ez baitzegoen beste zuhaitzik.

Michel Lesourd, Saharako Aferen Frantziako Zerbitzu Zentraleko kide eta aliatuen misio militar bateko komandanteak 1939ko maiatzaren 21ean ikusi zuen Ténéréko zuhaitza: “Zuhaitza ikusi behar da existitzen dela sinesteko. Zein da bere sekretua? Nola egon daiteke bizirik, inguruan hainbeste gamelu izanda? (...) Gatzaren ibilbidea egiten duten tuaregek zergatik ez dizkiote adarrak mozten sua piztu eta tea prestatzeko? Erantzun bakarra da tabua dela haientzat. Superstizio moduko bat dago, tribuko agindu bat, beti errespetatzen dena. Akazia itsasargi bizia bihurtu da; Agadezetik Bilmara joan-etorrian dabilzantzat lehen eta azken mugarrria”.

Beraz, azaletik gora tuaregak arduratzten ziren zuhaitza zaintzeaz. Lurpean aldiz, akazia bera arduratzen zen, inguru ankerrari egokitzeko gaitasun ikaragarria



ESZKERREAN, TÉNÉREKO ZUHAITZA 1939AN. ERDIAN, ZUHAITZ BERA –EDO GERATZEN ZITZAION ZATIA– 1970EAN. ESKUINEAN, GAUR EGUN ZUHAITZA ORDEZKATZEN DUEN METALEZKO EGITURA.

erakutsiz. 1939an bertan putzu bat zulatu zuten haren ondoan akuifero baten bila. Akuiferoa topatu zuten, baita zuhaitzaren sustraiak ere, 33-36 metroko sakoneran.

Henri Lhote frantziar etnologo eta esploratzaileak bitan ikusi zuen zuhaitza: 1934an eta 1959an. *L'épopée du Ténéré* liburuan, deskribatu zuen bigarren bisitan topatutakoa: “Lehen, zuhaitza berde eta loretan zegoen; orain, sasi koloregabe biluzia da. Ez dut ezagutu; lehen, bi enbor oso nabarmen zituen. Orain bakarra geratzen da, bestearren motzondoa albo batean duela. Zer gertatu zaio zorigaiztoko zuhaitzari? Besterik gabe, kamioi batek jo du, hura saihesteko nahi beste toki izan arren. Zuhaitz tabu sakratua, nomadek sekula minik egin ez ziotena, mekanikaren biktima izan da”. Edo zuzer-

nago, zuhaitza jo zuen ibilgailu militarra gidatzen ari zen gizakiaren biktima.

Kalte handiak eragin arren, kolpeak ez zuen akazia hil. Harik eta 1973an beste kamioi batek bete-betean jo zuen arte. Zuhaitz hilari geratzen zitzaion enborra Niameira eramane zuten, Nigerreko Museo Nazionalean, eta haren ordez metalezko egitura bat jarri zuten basamortuan.

Duela 80 urte, Michel Lesourdek bere buruari galdetzen zion nola zen posible zuhaitza bizirik egotea. Orain, askok bere buruari galdetzen diote nola den posible 400 kilometrotan oztopo bakarra izan eta, behin ez, bitan jotzea. Duela 80 urte, bazirudien Ténéréko akaziaren egokitzeko gaitasunak ez zuela mugarik. Gaur egun, garbi dago gizakion kirtenkeria dela mugarik ez duena. ●



Moskuko Plaza Polita

Moskuko Plaza Gorriaren izena nondik datorren pentsatzean bi aukera bururatu ohi zaizkigu. Gorria esaten diote, batetik, komunismoari lotutako kolorea delako edo, bestela, plazaren inguruko eraikin asko adreilu gorritzakoak direlako.

Ez bata eta ez bestea, ez dira zuzenak. Errusieraz *Krasnaia ploshxad* esaten diote eta, gaur egun, *krasnaia* hitzak “gorria” esan nahi du.

Baina errusiera zaharrean, XVI. mendean, esaterako, beste adiera bat zuen hitz horrek: “polita” esan nahi zuen. Mende horretakoa da San Basilio katedrala eta hasieran adjektiboa eraikin ederrari soilik jarri zioten. Gero, XVII. mendean inguruan katedralaren pareko plaza osoa deskribatzeko erabiltzen hasi ziren eta plazaren izen zaharra, *Pozhar* (sua), ordezkatu zuten. Plaza polita/gorria izango zen aurrerantzean. ●